

Jon Abrilen hitzaldia Gipuzkoako Batzarrean (2010-12-11)

Entzun nahi zaitugu leloarekin kanpainen ari da Gipuzkoako Aralar. Bertzea entzutea, herritarrak entzutea baino ariketa demokratikoagorik zein aberasgarriagorik ez dago. Hain sinplea, eta hain erraza. Baina hain gutitan egiten dena, eta hain guti gaude herritarrak ohituak entzunak izatera, deigarria ere badela. Eta hori da Aralarren ekarpen handienetako bat politikan. Herritarrekin, herri mugimenduekin hitz egin, hauek aditu, euren ahotsa instituzioetara eraman. Praktikara eraman dugu politika egiteko modu hori. Eta hori da Aralarrek gizarteari eskaini behar dion lehenbiziko elementu berritzailea: politika egiteko bertze modu bat dugula. Badagoela bertze era batera gauzak egiterik.

Politikarekiko desafekzioa gero eta handiagoa den garai hauetan, politikan dihardugunok egin behar dugu ahaleginik handiena gizartera hurbiltzeko, jendea konbentzitzeko politikaren bidetik aldatu daitezkeela gauzak, ez direla diren bezala horrela bakarrik posible delako. Argi erran behar diogu jendeari politika dela gauzak aldatzeko bidea. Eta horretarako, hitza da dugun tresnarik handiena. Baina politikan, maizegi, norabide bakar batean doa hitza. Eta ahantzi egiten dugu hitza bidaltzea bezain inportantea dela hitza ematea. Herritarrei hitza eman, entzun zein kezka dituzten, zein arazo, zer aldatu nahi duten, eta nola, zer planteatzen duten, zein proposamen dituzten. Hori da politika, joan-etorriko elkarrizketa bizia.

La política significa trabajar codo con codo con la ciudadana de a pie, con el vecino de al lado, con la gente que nos rodea. No concebimos la política ni como una clase superior, ni como una casta, ni mucho menos, como la vía para obtener unos réditos personales. Debemos devolver a la política su significado originario, el de servicio a la ciudadanía, el carácter solidario, el compartir las soluciones a los problemas cotidianos. Solo devolviendo a la política ese



carácter conseguiremos recuperar la confianza perdida por gran parte de la gente hacia la política, y sobre todo hacia los políticos. Cambiemos la forma de hacer política, para poder cambiar las cosas.

Estiloaz, formaz gain, politikak ere edukiak behar ditu. Krisiak jipoitutako garai honetan, eredu neoliberalaren porrota neurri neoliberalagoekin sendatu nahi dutenean, azpimarratu behar dugu gauzak aldatu behar direla, bertze modu batera egin behar ditugula, bertze politika batzuk lehenetsi behar ditugula. Krisi honek bertze erantzun bat behar du, eta posible da. Erantzun horrek ezkerretik etorri behar du. Ezkerreko erantzun sendo bat eskatzen du. Gurean, Euskal Herrian, langabetuena da krisiaren aurpegiarik gordinena. Milaka herritar ari dira pairatzen lanik ez izatea, soldata duin bat ez edukitzea, eta ondorioz, gizarte honetatik kanporatzeko arriskuan daude. Eta bereziki ari dira sufritzen egoera hori gazteak, emakumeak eta etorkinak. Beti bezala, ahulenek pairatzen dituzte sistema basati honen gehiegikeriak, basakeriak.

Egunotan Euskal Herriko instituzio ezberdinetan aurrekontuak eztabaidatzen ari dira. Eta bertze behin, ikusten ari gara aurrekontuek ez dutela izaera sozialik, ez direla herritarren beharrei erantzuteko egiten. Ikusten ari gara bertzelako interes batzuk lehenesten direla. Eta sekulako aitzakia bilatu dutela krisiarengan atzerapauso gehiago emateko norabide horretan.

Eta agintariei begiratzen diegunean, zer ikusten dugu? Deus ez. Ezereza. Jaurlaritzara begiratzen dugunean, ez dugu erantzunik aurkitzen. Bertze aldera begira, gizarteari bizkarra emanda bizi den Jaurlaritza baino ez dugu ikusten. Langabeziaren aitzinean ezer egiten ez duen gobernu batekin topatzen da egunero gizarte hau. Inesperientzia pairatzen ari direla diote eurek. Inesperientzia barkagarria da. Baina ez da hori gobernu honen arazoa, ez. Gobernu honen arazoa da inefikazia. Zezena adarretatik hartzeko gauza ez



direla, ez dutela ausardiarik, eta nahiago dutela zezenak barreratik ikusten jarraitu.

Soluziorik eman ez, eta gainera, ahulenengan jartzen dute iruzurraren zama guztia. Babes politikak proposatu beharrean, okerren pasatzen ari diren gizon-emakumeak aintzat hartu gabe, euren langabe sarien murrizketa planteatzen dute. Babes sozialik handiena behar dutenengan jarria dute iruzurrari aurre egiteko begia. Iruzurrari aurre egiteko, soilik, ahulenen kontrako neurriak hartzen dituzte.

Eta hemen, herri honetan, iruzurra ez dago prestazio sozialak jasotzen dituztenen artean. Hemen, iruzurrak izena badu: Fiskalitatea. Fiskalitatean dago gizarte honetan egiten den iruzurrik handiena. Azken bi urteotan, krisiaren garairik latzenez, presio fiskala murriztu da, gehien dutenen alde. Horrek, EAEn 3.000 milioi euro gutiago biltzea ekarri du. Azken 12 urteotako presio fiskalik ttikiena du Euskal Herriak une honetan. Eta babes soziala bermatzeko, langabezian daudenek soldata duin bat jasotzeko, hezkuntza eta osasun sistemak bermatzeko, ezinbertzekoa da neurri fiskal aurrerakoiak hartzea, diru-sarrerak bermatzea. Hori da Aralarrek duen proposamena gizarte-babesa bermatzeko.

Hay medios para financiar los servicios básicos, las necesidades básicas de la gente. Tenemos suficiente riqueza como para garantizar que todas las personas tengan acceso a los servicios elementales. Existen recursos para hacer una sociedad más igualitaria, más justa. Tenemos mecanismos para mejorar la financiación de las instituciones. Pero hay que saber utilizarlos. Con unas políticas fiscales miméticas a las del resto del estado español, con una presión fiscal a la cola de Europa, y con una nula e ineficaz inspección fiscal por supuesto que no recaudaremos lo que debíamos. Por eso, exigimos un



aralar

cambio radical en las políticas fiscales y financieras de este país. Exigimos poner el dinero recaudado al servicio de las y los ciudadanos.

Izan ere, benetako iruzurra ikuskapen edo inspekzio faltan dago. Horri egin behar diote aurre gure instituzioek. Frogatua dagoenean, gainera, inspekzioan inbertitutakoa ongi inbertitua dagoela. Soldatak ez diren errentetan dagoen zerga-iruzurra sekulakoa da, eta horri ez zaio neurririk hartzen. Laguntza sozialak behar dituztenak ikuskatzea da helburua hemen!

Gaur mezua bidali nahi diet gaizki pasatzen ari diren horiei, langabeei, etxean diru-sarrerarik gabe geldituko diren horiei: ez zaituztegu bakarrik utziko! Ez dizuegu kale eginen. Ezkerreko politika eraginkorrak egiten jarraituko dugu, herritar guztien oinarrizko eskubideak bermatu daitezzen. Zuen ondoan egonen gara, zuen, eta gu guztion eskubideak defenditzen. Gizarte justuago bat dugulako helburu!

Eta horretan, gizarte bezala, anitz dugu egiteko. Hamarkadetan zehar lortutako eskubideak mantentzeko lan egin behar dugu, Europa sozialean atzerapausorik eman ez dadin, herritar bezala, langile bezala eskuratu ditugun eskubideetan murrizketarik egon ez dadin, pentsioak bermatzeko, lan hitzarmenak errespetatzeko. Posible da. Bitartekoak badaude. Horien kudeaketa eredia da aldatu beharrekoa. Hori dugu ezkerrekook egiteko nagusia.

Eta abertzale bezala, euskal herritarrok badugu ere zer egin. Jon Sarasuak erran berri du euskaltasuna dagoela jokoan. Espainiatik datorkigun frentearen aitzinean, PSE-PPk inposatu nahi diguten herri ereduaren aitzinean, euskaldunok, abertzaleok, batzen jakin behar dugu, egindako bidean, lortutako esparruetan atzerapausorik eman ez dadin. A eredia kolkotik sartu nahi digute. EITBren izaera ezabatu nahi dute, espainiaru nahi gaituzte, kosta ala kosta, euren selekzioak etengabe paseatuz gure artean, diskriminatuak erdaldun



elebakarrak direla salduz, abertzalegoaren diktadurapean bizi izan garela sinetsarazi nahi digute. Ba jakin dezatela. Ez gaituzte espainiartuko. Ez. Euskaldunak eta euskal herritarrek gara, eta gehiengoaren nahia eta borondatea aintzat hartzeko gauza ez badira, arazoa eurek dute, ez guk.

PSEk eta PPK, eskutik hartuta, argi adierazi dute diputazioak eta udal nagusiak dituztela helburu hurrengo maiatzeko hauteskundeetan. Ba jakin dezatela, gu aurrez aurre egonen garela, aurre eginen diegula eurei eta euren asmoei. Ez gaituzte kikilduko!

Señor Lopez, señor Basagoiti. Por mucho que lo intenten, la realidad es mucho más tozuda de lo que creen, y este pueblo, el pueblo vasco, si ha mantenido su carácter, su lengua, su identidad durante siglos, no ha sido por casualidad. Y ahora, ustedes no van a lograr que nos callemos, que les hagamos la ola, que nos quedemos quietos ante este afán continuo de españolización a toda costa, de imposición de unos símbolos, una lengua y una identidad. No, porque entre otras cosas, ustedes no representan a la mayoría ni social ni política de este país. Y sepan que nos tendrán en frente en su objetivo de capitalizar todas las instituciones. ¡No lo conseguiréis!

Herri bezala erronka handiak ditugu, bai. Bakea lortzeko helburuak eraman gintuen, bertzeren artean, Aralar sortzera. Orain inoiz baino eskuragarriago dago bakea. Eta guk badugu geure eredia. Patxi Lopezek ezarri nahi duen irabazle eta galtzaileen bakearen aitzinean, Aralarrek adiskidetzear oinarritutako bakearen alde eginen du lan. Giza eskubideen guztien defentsa irmoa egin dugu beti, urraketa horien jatorria edozein zela ere. Ahots goran salatu ditugu ETaren basakeriak eta jazarpena; Espainiako agintarien gehiegikeri judizialak eta politikoak; Euskal Herriko zein kanpoko polizia-etxeetan izan diren torturak; alderdien ilegalizazioak; dispertsioaren kalteak; eskubide urraketa oro, gehiegikeria oro. Eta horrek eman digu sinisgarritasuna,



aralar

ez garela isilik gelditzen, ez dugula bertze aldera begiratzen giza eskubideen urraketa bat dagoenean. Eta biktima guztiak, edozein dela ere sufrimendu horren jatorria, aintzat hartzen ditugula.

Indarkeriaren estrategia lehenago amaitu behar zutela eta gaizki neurtutako estrategia izan dela, akatsa egin dutela aditu dugu berriki. Bai, arrazoi dute. Baina oraindik ez dute aitortu zenbateko sufrimendua eragin duen *akats* horrengatik, kanpoan zein etxean. Zer eman digu herri bezala indarkeriak azken hamarkadetan? Hildakoak; biktimak; ehundaka gazte kartzeletan; hauen guraso eta senideen sufrimendua; oinazearen kiribilan kateatzea; estatuen estrategia antzu, errepresibo eta gogorra... Bai, gaizki neurtutako estrategia izan da, hagitx gaizki, gainera. Horrengatik, ETAk orain du abagunea gauzak moldatzen hasteko, behin betiko etena emanez, eta eragindako kaltea aitortuz.

Eta Espainiako Gobernuak ere, ostrukarena egiteari utzi, burua lurpetik atera, eta herri honen bake nahiari tamainako erantzuna emateko behar den ausardia eduki dezala eskatzen diogu. Utz diezaiola justizia politikoki erabiltzeari. Ahaztu ditzala garai bateko eskema zaharkituak eta onartezinak. Egin dezala egin behar duena: herri hau entzun. Aralarrek bezala, Espainiako gobernuak erran diezaiola herri honi "entzun nahi zaitugu". Belarria jartzen badu, adituko du herri honek bakea nahi duela. Eman diezaiola hitza herri honi.

Beraz, gaur eman nahi dugun mezua da posible dela bertzelako Gipuzkoa bat, posible dela bertzelako Euskal Herri bat. Ameslariak bagara, bai. Baina oinak lurrean ditugu. Eta herritarrekin batera osatu nahi dugu bertze Gipuzkoa bat, bertze Euskal Herri bat, bertze gizarte bat.

Bai, posible da. Posible da bertze modu batean politika egitea. Posible da bertze gizarte eredu bat eraikitzea. Posible da abertzaleok gehiengoak biltzea, eta euskaltasuna babestea. Eta posible da adiskidetzean oinarritutako bakea



eraikitzea. Gaur Aralarrek mezu hori helarazi nahi du hemen. Posible dela, eta egingarria, guztion ahaleginarekin, guztion lanarekin, guztiok aintzat hartuz.

www.aralar.net

Aralar Araba
Kanpokale berria 4, behea
01001 Gasteiz
Tel.: 945 25 26 31
Faxa: 945 25 26 31
araba@aralar.net

Aralar Bizkaia
Aretxabaleta 4, 1. solairua
48010 Bilbo
Tel.: 94 421 28 56
Faxa: 94 421 25 01
bizkaia@aralar.net

Aralar Gipuzkoa
Pedro Egaña, 10
20011 Donostia
Tel.: 943 47 19 55
Faxa: 943 47 06 36
gipuzkoa@aralar.net

Aralar Nafarroa
Aduanaren txokoa 16-18, behea
31001 Iruñea
Tel.: 948 20 63 62
Faxa: 948 20 60 03
nafarroa@aralar.net